



TOLOSAKO
UDALA

2026IORD0001

UNITATEA	EUSKARA ETA HEZKUNTZA
XEDEA	AITZOL UDAL EUSKALTEGIKO ERREGELAMENDUA ALDATZEA

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA

Erregelamendua: Aitzol Udak
Euskaltegiaren erregelamendua

- **Kontsultaren argitalpen-data:**
2026/03/24
- **Parte hartzeko prozesua**
2026/04/10 arte egongo da irekita.

Zinegotzi delegatuak 2026/03/23an egindako probidentziaren bidez, izapideak hasi ziren aipatutako Erregelamenduaren aldatzea egiteko eta onartzeko.

Bat etorrita 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133. artikuluan xedatutakoarekin, araua egin aurretik kontsulta publiko bat egiten da, Udalaren webgunearen bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrien iritzia eta iradokizunak biltzeko.

Kontsulta honako alderdi hauei buruzkoa izango da:

a) Araudi berriarekin konpondu nahi diren arazoak

Zerbitzu berri bat sortu nahi da Aitzol Udak Euskaltegian, atzeritar jatorriko herritarrek euskara eta euskal kulturara hurbiltzeko. Erregelamendua aldatu nahi da horretarako, zerbitzua sortzeko eta haren jarduna arautzeko.

b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna

Atzeritar jatorriko herritarren kopurua nabarmen areagotu da Tolosan, eta datozen urteetarako proiektioek diote

CONSULTA PÚBLICA PREVIA

Reglamento: Reglamento del
Euskaltegi Municipal Aitzol

- **Fecha de publicación de la consulta:** 24/03/2026
- **El proceso de participación estará abierto hasta el 10/04/2026.**

Mediante providencia de 23/03/2026 de la concejala delegada, se iniciaron los trámites para la elaboración y aprobación de la modificación del citado Reglamento.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se procede a realizar una consulta pública previa a la elaboración de la norma, a través de la página web del Ayuntamiento, con el fin de recabar las opiniones y sugerencias de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La consulta versará sobre los siguientes aspectos:

a) Problemas que se pretenden solucionar con la nueva normativa

Se pretende crear un nuevo servicio en el Euskaltegi Municipal Aitzol para acercar el euskera y la cultura vasca a personas de origen extranjero. Se propone modificar el Reglamento para crear dicho servicio y regular su funcionamiento.

b) Necesidad y oportunidad de su aprobación

La población de origen extranjero se ha incrementado notablemente en Tolosa, y las proyecciones apuntan a

ESKU6e255b54-4ad5-48ea-93b7-a21e00ea7816a

igoera are handiagoa izango dela. Euskararen indarbertzearen aldetik, erroka handia dakar aldaketa horrek, aintzat hartuta herritar horiek euskaraz ezer jakin gabe iristen direla Tolosara. Aitzol Udal Euskaltegiako ikasleria ere aldatzen ari da, eta migratzaileek gero eta presentzia handiagoa dute. Behar bat jarri du agerian aldaketa horrek: hizkuntza irakasteko prozesuan nola landu euskararen egoera soziala, eta nola sustatu profil horretako ikasleak euskal kulturara hurbiltzea, kontuan hartuta nolakoa den haien abiapuntua.

que el aumento será aún mayor. Este cambio supone un reto para la revitalización del euskera, teniendo en cuenta que estas personas llegan a Tolosa sin saber nada de euskera.

El alumnado del Euskaltegi Municipal Aitzol también está cambiando y la presencia de personas migrantes es cada vez mayor. Este cambio ha puesto de manifiesto la necesidad de trabajar la situación social del euskera en el proceso de enseñanza y de fomentar el acercamiento a la cultura vasca de este alumnado, teniendo en cuenta su punto de partida.

c) Arauaren helburuak

Xedea da atzerritar jatorriko euskara-ikasleak euskara eta euskal kulturara gerturatzea, haien beharrak kontuan hartuko dituen zerbitzu espezifiko bat sortuta. Bi bide nagusitatik erantzun asmo zaio helburu horri: alde batetik, jatorri atzerritarreko ikasleei begirako berariazko ikastaroak antolatuta, eta bestetik, ohiko ikastaroetan ari diren jatorri atzerritarreko ikasleei harrera espezifiko eginda. Ikasmaterialak egokitzea eta beste eragile batzuekin elkarlan-bideak zabaltzea ere izango da zerbitzu berri horren egitekoa.

c) Objetivos de la norma

El objetivo es acercar el euskera y la cultura vasca al alumnado de origen extranjero, creando un servicio específico que tenga en cuenta sus necesidades. Se pretende dar respuesta a este objetivo a través de dos vías principales: por un lado, organizando cursos específicos dirigidos a este alumnado y, por otro, mediante una acogida específica para el alumnado de origen extranjero que cursa los cursos ordinarios. El nuevo servicio tendrá entre sus funciones adecuar los materiales didácticos y establecer vías de colaboración con otros agentes.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak

Ez da sumatu bestelako aukera erregulatzaile edo ez-erregulatzaileak.

d) Posibles soluciones alternativas, regulatorias y no regulatorias

No se observan otras alternativas regulatorias o no regulatorias.

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko
zinegotzi delegatua

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

Concejala delegada del Subárea de
Euskera y Euskaltegi



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026IORD0001-Kontsulta iragarkia/Kontsulta iragarkia (TOLOSAKO UDALA)